



Euskara Gehiago
Sinadura bilketa

Euskara guztiontzat izan dadin, hezkuntzak euskara gehiago behar du.

Euskara eta euskal kultura ardatz izango dituen Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Hezkuntza Lege berri baten alde, Eusko Legebiltzarreko kideei lege berriak honako hiru puntuak berariaz jaso ditzala eskatzen diegu:

1. Euskara ikas- eta irakats-hizkuntza izango duen eredu orokortu inklusiboa.
2. Euskal kultura ardatz izango duen euskal curriculumua.
3. Hezkuntza ez-arautua osorik euskaraz garatzea.

www.euskaragehiago.eus



SINATU



Hezkuntzak euskara gehiago behar du

Sinadura bilketarako sei arrazoi

- 1** Euskara ikastea, eskubide kontua
Herritar guztiek dute euskara ezagutzeko eskubidea, edozein izanik ere haien bizitokia, egoera sozioekonomikoa, jatorria edota ingurune soziolinguistikoa. Gaur egungo hezkuntza sistemak ez du eskubide hori bermatzen, eta onartezina da milaka haur eta gazte euskara gaitasun nahikorik gabe uzten aritzea.

 - 2** Euskara gutxiago duenari gehiago eman
Etxetik euskara jasotzen ez duten edo zaurgarritasun soziolinguistiko handiagoa duten ikasleei arreta berezia eta behar bezainbeste baliabide eskaini behar dizkie hezkuntza sistemak.

 - 3** Euskalduntzeko eredu arrakastatsuen
Datuek erakutsi dute ikasle euskaldun eleaniztunak sortzerako orduan arrakasta gehien izan duen hezkuntza eredu dela euskara ikas- eta irakats-hizkuntza duena; D eredu, alegia.

 - 4** Mundu bat euskaraz
Kultura ere eskubidea da, eta kalitatezko hezkuntzaren bidean, ezinbestekoa da euskarazko kulturgintzaren transmisioa bermatzea, gizarte-kohesiorako elementua baita.

 - 5** Euskara, bizikidetzaren giltzarria
Euskara ezagutzea, aberastasun bat baino gehiago, belaualdi berrien aukera berdintasunean zuzenean eragina duen elementua da, izan garapen profesionalari begira zein eguneroko bizitza sozialean ere.

 - 6** Euskarari etorkizuna eskaintzeko
Globalizazioak homogeneousazio azeleratua ekarri eta bizitza erabat digitalizatu zaigun testuinguru honetan hizkuntza gutxituei zaildu egin zaie bizirik irautea. Euskara ez da salbuespena. Hezkuntza da euskararen transmisioa ziurtatzeko eta euskarari etorkizuna eskaintzeko bidea. Eta, aldi berean, hurrengo belaunaldiek etorkizun bizigarria izango badute ezinbestekoa da egungo homogeneousazio joera arrakalatu eta, arlo denetan, dibertsitateari eustea. Euskara da dibertsitateari egin diezaiotegun ekarpenik handienetakoa.
-